

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ENTE PUBLIKOAREN ARTEKO PROGRAMA-KONTRATUA (2026-2029)

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 6an.

HONAKO HAUEK ELKARTU DIRA

Alde batetik, Ibone Bengoetxea Otaolea andrea, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua.

Eta bestetik, Jon Andoni Aldekoa de la Torre jauna, Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoaren zuzendari nagusia.

ESKU HARTZEN DUTE

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren izenean eta ordezkartzan, eta Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoaren izenean eta ordezkartzan, hurrenez hurren.

ADIERAZTEN DUTE

1. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 19.3 artikulua araberak, «Euskal Herriak bere telebista, irrati eta prentsa arautu, sortu eta mantendu ahal izango ditu eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen gizarte-hedabide guztiak».
2. Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa (aurrerantzean, EITB) sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen lehenengo artikulua ente publikoari esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari irrati- eta telebista-zerbitzuen titular gisa dagozkion eginkizunak, telebista, irrati eta Interneteko zerbitzuak kudeatzen dituen EITB Media SAU sozietate publikoaren bitartez. Eskumen hori kontuan hartuta, lege horren 45. artikulua honako hau ezartzen du: «Euskal Irrati Telebista Erakundea Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko da», eta ahalmena ematen dio «egiten dituen jardueren diru-sarrerak eta etekinak» jasotzeko.
3. Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua arautzeko Europako esparruaren oinarria Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu da (EBFTko 167.

artikulua). Hura oinarri hartuta onetsi zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/13/EB Zuzentaraua, 2010eko martxoaren 10ekoa, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak emateari buruz estatu kideek dauzkaten lege-, erregelamendu- nahiz administrazio-xedapen jakin batzuk koordinatzeari buruzkoa (Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuei buruzko Zuzentaraua). Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko azaroaren 14ko 2018/1808 Zuzentaruak aldatu eta eguneratu du Zuzentarau hori, merkatuaren errealitateen bilakaera kontuan hartuta, merkatu digital bakarrerako estrategiaren zati gisa. Ildo horretan, nabarmendu behar da, halaber, Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 18ko Erabakia, Kultura Adierazpenen Aniztasuna Babestu eta Sustatzeari buruzko Konbentzioa egiteari buruzkoa. Konbentzio horrek, 1.a) eranskinaren 4.4 artikuluan, kultura-jarduerak, -ondasunak eta -zerbitzuak definitzen ditu «kalitatearen, erabileraren edo helburu espezifikoen ikuspegitik, kultura-adierazpenak gorpuzten edo transmititzen dituzte, izan dezaketen merkataritza-balioa edozein dela ere».

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko azaroaren 14ko 2018/1808 Zuzentaruak, lehen kontuan hartuzkoan, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen merkatuak izandako bilakaera azkarra islatzen du. Bilakaera bizkor horren arrazoia da aurrerapen teknikoek erabiltzaileen zerbitzu eta esperientzia mota berriak ahalbidetu dituztela, eta ikusteko ohiturak nabarmen aldatu direla. Batetik, ikusle askok telebista-pantailak ez diren beste gailu mugikor batzuk aukeratu dituztelako ikus-entzunezko edukiak ikusteko. Bestetik, eduki mota berriak ugaritu direlako, hala nola bideo laburrak eta erabiltzaileek beraiek sortutako edukia.

Aurrekoaren ondorioz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko azaroaren 14ko 2018/1808 Zuzentaruak erregulazioaren oinarriak ezarri nahi ditu, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen merkatua izaten ari den aldaketa sakonei erantzuteko.

4. Era berean, Europa mailan, eta Europako komunikabideen merkatu bakarra indartzeko nahiz hedabide publikoen finantzaketa bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1083 (EB) Erregelamendua onartu da, 2024ko apirilaren 11koa, barne-merkatuko komunikabideen zerbitzuetarako esparru komuna ezartzen duena eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko martxoaren 10eko 2010/13/EB Zuzentaraua aldatzen duena (erregelamendu hori Komunikabideen Askatasunari buruzko Europako Legea edo European Media Freedom Act izenez ere ezagutzen da). Erregelamendu horrek honako hau ezartzen du, hitzez hitz, zioen azalpenean:

«Halaber, bermatu behar da, Europar Batasunaren estatu-laguntzei buruzko arauak aplikatzea alde batera utzi gabe, komunikabideen zerbitzu publikoaren emailleek

finantzaketa-prozedura garden eta objektiboak baliatuko dituztela, zerbitzu publikoaren agindua betetzeko finantzaketa egokia eta egonkorra ziurtatzeko, haren plangintza eta zerbitzu publikoaren aginduaren garapena aurreikusteko. Hobe da finantzaketa hori urte anitzeko oinarri baten gainean erabaki eta egokitu behar izatea, komunikabideen zerbitzu publikoaren emailek zerbitzu publikoa emateko aginduarekin bat etorri, urteko aurrekontu-negoiazioetatik erator daitekeen bidegabeko eragin-arriskua saihesteko (...).

Eta, 5.3 artikuluan:

«Estatu kideek bermatuko dute komunikabideen zerbitzu publikoaren emaileen finantzaketa-prozedurak alde aurretik ezarritako irizpide garden eta objektiboetan oinarritzen direla. Finantzaketa-prozedura horiek bermatuko dute komunikabideen zerbitzu publikoaren emailek baliabide ekonomiko egokiak, jasangarriak eta aurreikusteko modukoak izatea, zerbitzu publikoaren mandatua betetzeari eta haren esparruan garatzeko duten gaitasunari dagokionez. Baliabide ekonomiko horiek komunikabideen zerbitzu publikoa ematen dutenen independentzia editoriala babesteko modukoak izango dira».

5. Besteak beste, aipatutako zuzentarauak transposatzeko eta araudia eguneratzeko, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorra onartu zen. Lege horrek, 51. artikuluan, ikus-entzunezko komunikazioko zerbitzu publikoaren eginkizunaren estatu-mailako definizioa proposatzen du, honako hauetan zentratuta:

«a) Konstituzioko printzipioak eta balioak sustatzen dituzten programak zabaltzea, eta, bereziki, berdintasunarena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, informazio-askatasuna eta adierazpen-askatasuna barne, iritzi publiko plurala eratzen lagunduz.

b) Programazioan gizartearen aniztasun politiko, sozial eta kulturala islatzea.

c) Gizartearen kultura-, zientzia-, historia- eta arte-ezagutzarako sarbidea sustatzea, bai eta gizartearen informazio-, kultura-, hezkuntza- eta entretenimendu-beharrizanak kalitatezko programen bidez asetzea ere, bai eta hurrei eta herritarren alfabetatze mediatikoari bereziki zuzendutako programen bidez ere.

d) Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ezagutaraztea».

Lege horren 53.3 artikuluan berariaz adierazten denez, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoaren emaile orok zerbitzu publikoaren eginkizuna

betetzen dela ziurtatzeko behar adina antolamendu, egitura eta giza baliabide eta baliabide ekonomiko izan behar ditu.

Arau beraren arabera, bitarteko publikoen finantzaketa programa-kontratuan zehaztu behar da. Finantzaketa hori bateragarria da estatu-laguntzen araudiarekin, eta aurrekontu-egonkortasuna bermatzen du zerbitzu publikoaren eginkizunak benetan betetzeko, eginkizun horrekin lotutako jardueri eta zerbitzuei eutsita.

Ildo horretan, Europan eta Estatuan agerikoa da estatu kideek ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa finantzatzeko ahalmena dutela, betiere finantzaketa irri-difusioko erakundeei ematen bazaie, estatu kide bakoitzak esleitu, definitu eta antolatu duen zerbitzu publikoaren eginkizuna betetzeko. Horretarako, argi eta garbi definitu behar da zerbitzu publikoaren funtzioa, tresna ofizial bidez, kasuan kasuko erakunde publikoari esleitu zaiona, eta agintari eskudun batek edo horretarako izendatutako erakunde batek kontrolatu behar du.

6. Finantzaketa publikoari eta programa-kontratuaren figurari dagokienez, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 58.3 artikulua ere aipatu behar da, honako hau xedatzen baitu: «Administrazio orokorraren eta sektore publikoko entitateen arteko harreman ekonomikoak programa-kontratu edo finantzaketarako esparru egonkorren bidez arautu ahal izango dira (...)».
7. Horrela, aurreratu bezala, zerbitzu publikoaren funtzioaren helburu orokorren garapena eta zehaztapena, bai eta ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren emaila publikoek jasoko duten finantzaketa publikoa kalkulatzeko parametroak ere, dagokion programa-kontratuaren bidez egin behar dira. Programa-kontratu hori, kasu honetan, EAEko Administrazio Orokorrak eta Euskal Irrati Telebista (EITB) zuzenbide pribatuko erakunde publikoak sinatu beharko dute.
8. Orain arte indarrean egon den programa-kontratua 2022-2025 ekitaldietarako sinatutakoa da.
9. EITBri esleitutako betebeharrak esparrua berritzeko unea da, eta beste programa-kontratu bat onartu behar da.
10. Aurrekoan oinarrituta, programa-kontratu honek honako hauek finkatzen ditu:
 - EITBren zerbitzu publikoaren deskribapena.
 - EITBk zerbitzu publikoa emateko hartzen dituen konpromisoak.
 - EITBren zerbitzu publikoaren jarduera finantzatzeko modua.
 - EAEko Administrazio Orokorraren konpromisoak EITBren finantzaketari dagokionez.

- Betearazpena kontrolatzeko mekanismoak.

11. EITBren eta haren sozietate filialaren ekonomia- eta finantza-kudeaketa finantza-jasangarritasunaren printzipioaren eta aurrekontu-orekaren printzipioaren arabera gauzatuko dela, aplikatu beharreko araudiarekin bat etorriz.

Oinarri horien gainean, eta EITBren izaera eta funtzioak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da esparru bat ezartzea, irradi-difusioko zerbitzu publikoa ematearen oinarri izan behar duten printzipioetatik abiatuta, honako hauek definituko dituen: alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa emateko eginkizuna eta erakundeak bere gain hartzen dituen konpromisoak, eta, bestetik, EAEko Administrazio Orokorrak 2026-2029 aldian finantzaketa publikoari dagokionez hartzen dituen konpromisoak, programa-kontratu honetan EITBren zerbitzu publikoko konpromisoak betetzeko behar den egonkortasuna eta eraginkortasuna emate aldera.

Ondorioz, Gobernu Kontseiluak aldeko erabakia hartu ondoren (2026ko apirilaren 29an), alderdiek programa-kontratu hau sinatu dute. Hona hemen programa-kontratuaren oinarriak:

KLAUSULAK

1. Xedea

Programa-kontratu honek EITB sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legean oinarrituta dago. Lege horrek EITB herri-erakundeari egozten dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoen eginkizuna eta haren xedea da bi alderdien arteko harremanak —esleipen horren ondorio diren harremanak, hain zuzen ere— 2026-2029 aldian zehaztea.

2. Helburua

Programa-kontratu honen helburua da bere indarraldirako esparru bateratzailea ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta EITBren artean, azken horrek haren ardurapean daukan ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa ematearen ondoriozkoa. Horretarako, esleituriko zerbitzu publikoaren eginkizunaren definizioa ezartzen da, zerbitzuak dakartzan edukiak zehaztuta, eta, era berean, modu integratuan definitzen da EITBri zerbitzu publiko hori kalitate-baldintza onenetan ematea ahalbidetuko dion finantzaketa egonkorra.

Esleitutako zerbitzu publikoa EITBk eta haren sozietate publikoak, EITB Mediak, emango dute. Horretarako, formalki esleitura dauzkan irrati eta telebistako emisio-kanalak erabiliko ditu, aurrerago deskribatuko direnak, bai eta Internet eta euskarri berriak ere. Nolanahi ere, teknologikoki egokiak diren beste bide batzuk erabili ahal izango ditu, hala nola plataforma digitalak, programa-kontratu honetan egituratzen den zerbitzu publikoaren eginkizuna betetzeko, betiere eginkizun hori betetzeko esleitutako baliabide ekonomikoetara egokituta badaude.

3. Zerbitzu publikoa ematearen deskribapena eta printzipioak

3.1. Programa-kontratu honetan aipatzen diren gizarte-hedabideen zerbitzu publikoaren jarduera garatuko du, aplikatu beharreko xedapen orokorrei eta, bereziki, EITB sortzeko 5/1982 Legean aurreikusitako printzipioei jarraituz:

- a) Informazioaren objektibitatea, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna gordetzea.
- b) Informazioaren eta iritziaren arteko banaketa eta bereizketa, azken horren kasuan esataria nor den adierazi beharko delarik. Tratamendu berezi bera beharko du publizitate komertzialak.

- c) Berdintasuna, aniztasun politikoa, erlijiosoa, soziala, kulturala eta linguistikoa errespetatzea.
- d) Autonomia Estatutuan aitortzen diren bizikidetzaren balio zibikoak defendatu eta sustatzea, interes orokorra defendatzeko.
- e) Autonomia Estatutuak aitortzen dituen eskubide guztiak errespetatzea.
- f) Pertsonen ohorea, ospea eta, bereziki, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea errespetatzea.
- g) Gazteriaren eta haurtzaroaren babesa.
- h) Euskara sustatzea, eta, horretarako, programazioaren oinarrizko printzipioak ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko euskarri guztietan euskarazko emisioen eskaintza bermatzeko beharra kontuan hartuta.
- i) Euskal kultura hizkuntza ofizial, adierazpen, euskarri, bitarteko eta adierazpide guztietan sustatzen eta zabaltzen laguntzea.

3.2. Indarrean dagoen araudiari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio komunikazioko-zerbitzu publikoaren eredua eta haren finantzaketa finkatzea, betiere, printzipio hauen arabera:

- a) zerbitzu publikoaren atribuzioa eta definizioa ezartzea;
- b) zerbitzua ematen duen enpresaren menpe ez dagoen beste erakunde batek zerbitzua nola ematen den kontrolatzea, ebaluatzea eta hobetzea;
- c) finantzaketa publikoa mugatzea zerbitzu publikoaren misioaren kosturako behar den zenbatekora (proportzionaltasuna);
- d) zerbitzu publikoko jarduerak eta merkataritzako diru-sarrerak bereiziko dituzten kontabilitate-prozedurak ezartzea (gardentasuna),
- e) zerbitzu digital berriak ebaluatzea, gizartearen gizarte- eta kultura-beharrei erantzuten dietela egiaztatzeko.

3.3. Horri jarraikiz, programa-kontratu honek, indarrean dagoen bitartean, EITBk euskal gizarteri eman behar dion zerbitzua finkatzen du, ikus-entzunezko talde publikoaren eredupean. Eredu horretan, bere komunikabideen eskaintzen bidez, zerbitzu publikoaren eginkizuna garatzen da, honela:

Unibertsala eta pertsona guztientzako irisgarria, edonon, edozein egun eta ordutan, hainbat euskarrirako edukiekin, euskal gizartearen aniztasunari erantzunez.

Orotarikoa, mota guztietako eduki eta generoekin, askotariko programazioekin, euskal gizarte osoaren informazio-, prestakuntza- eta entretenimendu-beharrak asetzeko programazioekin, euskaraz eta gaztelaniaz.

Irekia, euskal kultura munduan bermatzeko eta zabaltzeko, kontsumo-ohitura eta euskarri berriak kontuan hartuta.

Jasangarria, finantzaketa publikoarekin eta diru-sarrerara propio osagarriekin, eta baliabideen kudeaketa arduratsu eta aurreratuarekin.

Gardena, bere gobernu-organoei eta gizarteari beharrezko informazio guztia ematea, EITBren helburuak lortzea eta izateko arrazoari buruzko kontu-emateko.

3.4. EITBk, zerbitzu publikoaren eginkizuna betetzeko, zenbait bitarteko emango ditu, hala nola telebista, irratia, Internet eta euskarri berriak, hala nola plataforma digitalak, honako ezaugarri hauekin:

- a) eskaintza osoa, plurala eta orekatua;
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan eta hizkuntza- eta kultura-kidetasunak dituzten beste lurralde batzuetan estaldura izateko banaketa-sistema egokiak eta eguneratuak;
- c) hedapena, kanpoko euskal gizataldeak eta Euskadiri lotutako edukiekiko interesa edo jakin-mina dutenetara.
- d) lehiakide diren punta-puntako enpresen teknologiarekin bat datorren ekoizpen- eta banaketa-teknologia;
- e) hori guztia modu eraginkor eta efizientean kudeatzen da, bitartekoak zerbitzu publikoaren xedeetara bideratuta eta kudeaketa gardenarekin.

3.5. EITBk bere jardueran erraz antzemateko moduko berezko identitate- eta estilo-ezaugarriak emango dizkie produktuei. Honako hauek:

- a) programazioa kalitatezkoa eta hurbila, zerbitzu publikoaren konpromisoekin bat datozen profesionaltasun- eta estilo-irizpideekin garatua;
- b) informazio-zerbitzu egiakzkoak eta pluralak, sinesgarritasunagatik, zorrotasunagatik eta hurbiltasunagatik ikus-entzuleek balioesten dituztenak;
- c) entretenimendua, zerbitzu publikoaren eginkizuna den aldetik, euskal gizartearen hizkuntza- eta kultura-arloko eskaera eta berezitasunei erantzuteko;
- d) gizarte moderno baten motibazio sozialak islatzen eta inspiratzen dituzten edukiak dituen eragile eraldatzailea izatea;
- e) gizarte-sentsibilizazioari laguntzea euskararen eta euskal kulturaren erabilera sustatzeko;
- f) eduki multimediak ekoiztea, ikus-entzunezko talde publikoaren eta herrialdearen ospea eta irudi moderno eta irekia lortzen lagunduko duten ideia eta formatu berrietara irekita;
- g) edukien eskaintzan inpaktua eta irudia orekatzea, zerbitzu publikoaren errentagarritasun sozialaren printzipioarekin bat etorriz;

3.6. Premisa horiek guztiak kontuan hartuta zerbitzu publikoaren printzipioak ezartzen dira, eta printzipio horien bidez honako hauek babesten dira:

1. Bermatzea pertsona guztiek, EITBren euskarrien bidez, era guztietako eduki eta generoetarako sarbidea dutela, euskal gizartearen aniztasunari erantzunda, herritarrek dituzten informazio-, kultura-, hezkuntza- eta entretenimendu-beharrak asetzeko, euskaraz zein gaztelaniaz.

2. Eragile eraldatzailea izatea, euskal gizarteari izan nahi duena izaten lagunduz. EITBren egitekoa da balio-ekarpena eta eragina izatea, bere estrategian txertatuta euskal erakundeek ezartzen dituzten helburuak, eta gizarte aurreratu baten balioak bultzatuz eta bermatuz.

3. Euskal gizarteak bere erakundeen bitartez (politikoak, sozialak, kulturalak) sortzen dituen ekimenak biltzea eta haien aliatua izatea.

4. Euskara sustatzea, euskarazko ekoizpena euskarri guztietan bermatzea; ikus-entzunezko talde publiko gisa normalizazioaren, prestigioaren eta bizitza publikoan presentziaren zutabe nagusietako bat baita, eta erabilera errazteko eta zabaltzeko ezinbesteko tresna. EITB euskararen normalizaziorako politiken aliatu izan behar da aro digitalean, eta ikus-entzunezko ekosistema global berrian presentzia izateko gaitasuna eta behar adina baliabide eduki behar ditu. Bereziki azpimarratu behar dira haur eta gazte elebidunen belaunaldi berriei zuzendutako euskarazko edukiak, eta horietan balioen transmisioa aztertu behar da, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren ikuspegiak osatuz.

5. Informaziorako eskubidea bermatzea, errealitatearen isla diren edukiekin, erreferentziazko informazio-iturrietan behar bezala egiaztatuta, kualifikazio handiko profesional-talde batek landuta, eta haien lanbide-jarduna egiazkotasuna eta aniztasuna defendatzera bideratuta dagoela.

Informazioa hainbat euskarritako informazio-programen bidez emango da. Programa horiek gizartearen eskaerei behar bezala erantzungo diete, eta dedikazio handia eskainiko diete euskal espazio publikoari, erakundeei, eragile politikoei, ekonomikoei, sozialei, kulturei eta gizarte zibila ordezkatzeko duten erakundeei. Informazio-zerbitzuek argitze- eta zuzenketa-eskaerei behar bezala bide ematen dien sistema izango dute.

6. Edukien ekoizpen propioa sustatzea, EITBren aktibo handi gisa, ikus-entzunezkoen euskal industriari balioa ematea sustatuz. Euskal ikus-entzunezkoen ekosistemaren kultura- eta sormen-industrietan jarduera ekonomikoa eta nortasun propioa sortzea da helburua.

7. Euskal ikus-entzunezko ekosistemarekiko aliantzak sendotzea, ekosistema hori garatzen laguntzeko asmoz, EITBk enplegua eta aberastasuna sortzea sustatzen duten enpresen eta profesionalen gaitasunak hobetzea du helburu, bai eta Euskadin sortutako ekoizpen eta edukien garrantzia bultzatzea, ezagutza eta kanpoko irudia emanda.

8. Euskadiren leiho izatea munduan, ikus-entzunezkoen ekosistema global berrian euskal kulturaren eta ekoizpenaren kontsumoa bultzatzea eta Europako zein munduko ikus-entzunezkoen esparruan herrialde aurreratu batekin bat datorren euskal presentzia eta irudia proiektatzea.

Era berean, euskal kultura munduan zabaltzea, adierazpen artistiko eta kulturalak babestuz, eta egungo sorkuntza nahiz ondare artistiko eta kulturala hedatzea euskarri digital berri guztien bidez eta gaur egungoak babestuz. EITBk euskal kirolaren sustapena eta hedapena ere bultzatuko du. Izan ere, EITBren iritziz, gizarte modernoetarako eta, bereziki, euskal gizarterako funtsezko egituratze-ardatzak garatzeko gaitasuna du. Horrez gain, kirolak zuzenean laguntzen dio pertsonen bizi-kalitateari, eta herrialdearen kohesiorako tresna ere bada.

9. Teknologiara egokitzea, etengabeko bilakaera teknologikoaren aurrean erantzuteko gaitasuna hobetzea ahalbidetzen duten formula berriak kudeatuz. Era berean, EITBk herritarrei plataforma eta eduki digitaletarako sarbidea errazten lagunduko die, sarbidearen doakotasuna bermatuz.

10. EITBren gaitasun korporatiboa hobetzea. EITBk Aurrekontuen Legeak ezarritako aurrekontu- eta plantilla-helburuak beteko ditu arriskuen kudeaketa eta etengabeko hobekuntza dakartzaten kudeaketa aurreratuko eredu bidez, betiere aplikagarria zaion araudia eta proiektuaren jasagarritasun ekonomiko eta finantzarioa bermatuta. Gainera, gardentasun-printzipioak aplikatuko ditu, eta partaidetza-dimentsioa indartuko du, datuen gobernantzan oinarritutako informazio-, komunikazio- eta kudeaketa-sistema baten bidez, gizartearekin informazio-truke erabilgarria, arina eta eraginkorra sustatuta.

4. Zerbitzu publikoaren edukia: Zerbitzu publikoa eskaintzeko EITBk hartutako konpromisoak

EITBren konpromisoa da, Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoren emailea den neurrian, euskal gizartearen eskaerei erantzutea, ikus-entzunezko informazio-, dibulgazio- eta entretenimendu-eskaintza anitza, erakargarria eta kalitatezkoa eskainiz, euskal kultura eta hizkuntza sustatzea eta egungo ikus-entzunezko ekosisteman euskara normalizatzen, erabiltzen eta zabaltzen laguntzea. EITBk euskal ikus-entzunezko edukien eta euskarazko edukien bermea izaten jarraitu behar du kontsumo eta euskarri digital berrien aurrean, eta haren komunikabideak erreferenteak izan behar dira euskal gizartearentzat informazio eta zerbitzu publikoan, gazteriarekin konektatuz, mundura euskal leihoa bihurtuz eta «EITB proiektuaren» iraunkortasuna bermatuz. Jarraian definitutako konpromisoak gauzatzeko, EITBk ikus-entzunezko zerbitzua hobeto ematen laguntzeko jarduerak garatu ahal izango ditu ikus-entzunezko komunikazioaren eremuan, baita ekosistema digitalean ere, euskal ikus-entzunezkoen ekoizpena eta sektorea sustatzeko eta garatzeko, ikus-entzunezko

multimediaren ekoizpenaren balio-kateko elementu guztietan behar den presentzia edo partaidetza izanez. Horretarako, jarduera horiek guztiek zuzenean bermatu eta lagundu beharko dute EITBk programa-kontratu honen arabera hartzen dituen konpromisoak hobeto betetzen.

Era berean, EITBk akordioak eta aliantzak egin ahal izango ditu hirugarren erakundeekin, zehaztutako konpromisoren bat sustatzeko edo bultzatzeko, sustatu nahi diren kausa zehatzak agerian uzteko, betiere jarraian zehazten diren lehenetsuen esparruan badaude. Aurrekoa egin ondoren, hauek izango dira EITBk programa-kontratu honen esparruan dituen konpromiso nagusiak:

4.1. 1. konpromisoa. Eragin soziala eta aliantzak

EITBk aurrera egin behar du balio soziala erantsi eta euskal gizartearen errealitatearekiko konpromisoa emango dituen zerbitzu publikoaren eredu baterantz, eraldaketarako eta inpaktu sozialerako eragile izanik eta gizarte aurreratuagoa sustatuko duten aliantza-sarea sortuz. Konpromiso horiek honela gauzatuko dira:

- 1.1. Pertsona guztiek euskarri guztietarako sarbidea dutela bermatzea, euskal gizarte-aniztasunari eta -aniztasunari erantzuna emanez eta eraldaketa-eragileak izanik, Euskadiren gizarte-aurrerapenean aktiboki eraginez.
- 1.2. Jendeari arreta emateko zeharkako sistema integrala indartu eta eguneratzea, zeinak gizartearekin harremanak izateko modu berria definituko dituen eta parte-hartzea, gertutasuna eta gardentasuna bultzatuko dituen.
- 1.3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta kultura-, arraza- eta sexu-aniztasuna eta Euskadi anitza eta sozialki kohesionatua izan dadin sustatzen duten ekintzetan aurrera egiteko konpromisoa hartzen duela.
- 1.4. Gizarte-konpromisoa adierazten duten kausa eta ekimenen inguruan egituratutako erakunde eta entitateekin aliantzak bultzatu, aldatetaren parte izaten lagunduz, gizarte-, kultura- eta bizikidetzeta-balioen benetako bultzatzaile eta bermatzaile gisa eratu, erreferentziazko bitartekoa izanik.
- 1.5. Euskadiren nazioarteko proiektzioa bultzatzea, Europako eta munduko nodo eta sareekin konektatzea, etab.

4.2. 2. konpromisoa. Euskara eta euskal kultura

Euskara eta euskal kultura garatzea, sustatzea eta hedatzea helburu gisa dago jasota EITB sortzeko 5/1982 Legean. Zerbitzu publikoaren sorrerazko printzipio horrek, EITBren izateko arrazoiak, nortasun propioa ematen dio, ekintza guztien ezaugarri ere bada. Halere, kontsumitzeko ohitura berriei ezin die ez ikusiarena egin, eta horrenbestez, formatuak eta euskarriak eskaera berrietara egokitu behar ditu. Euskadi eraldatzeko funtsezko gaietako bat da gure kulturaren parte diren euskara, musika, zinema, ezagutza eta bizimodua babestea digitalizazioaren eta globalizazioaren garaian. Konpromisoa honela gauzatuko da:

- 2.1. EITBren ekoizpen-eredua egokitzea, kudeaketa transbertsalaren bidez, bere eskaintza zabaltzeko kontsumo digitalaren testuinguru berrian eta plataformetan, euskararen garapena babestuz eta lagunduz.
- 2.2. Euskal edukien eta euskarazko edukien eskaintza zabala sortuz, erakargarriak, kalitatezkoak eta irisgarriak herritarren kontsumo aktiborako izan daitezen. Eta, ahal den guztietan, lehentasunez erabiltzen laguntzea.
- 2.3. Ikus-entzunezko euskal ondarea zainduz eta herrialdeko erakunde publikoekin eta gizarte- eta kultura-erakundeekin lankidetzan arituz, euskara, arte- eta kultura-adierazpenak eta egungo sorkuntza nahiz arte- eta kultura-ondarea sustatzeko itun eta akordioen bidez.
- 2.4. Euskara biziberritzeko bultzada sustatuz, eta, horretarako, euskararen erabilera soziala bultzatuko duten edukiak eta baliabideak eskainiz.
- 2.5. EITBn euskararen erabileraren etengabeko hobekuntza eta kalitatea sustatuko dira, prestakuntza-, ikerketa-, berrikuntza- eta etengabeko hobekuntza-mekanismoen bidez.

4.3. 3. konpromisoa. Irratia eta telebista

EITBk, zerbitzu publikoaren emailea den heinean, euskal gizartearen beharrei eta eskaerei erantzun behar die, egungo aldaketekin eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerekin bat etorriz, irisgarritasun unibertsala, geografikoa zein soziala, bermatzen duten euskarri tradizionalak alde batera utzi gabe. Hori guztia EITB markaren kalitate- eta gertutasun-atributuei eutsiz, marka horrek balio gehigarria ematen baitio. Konpromisoa honela gauzatuko da:

- 3.1. Kalitatezko eskaintza erakargarria sortzea, euskal gizartearen sentimenduekin eta premiekin bat datorrena, eta gizartearen irisgarritasun unibertsala ziurtatzea, bai lurraldearen ikuspegitik, bai ikuspegi teknologikotik ere, eta, horretarako, zerbitzu-sare sendo eta moderno mantentzea.

4.4. 4. konpromisoa. Plataforma digitalak

Aurrerapen teknologikoak eta euskal gizartearen eta kontsumo-modu berriek ikus-entzunezko euskarri digital berriei bide eman diete. Euskarri horiek sendotu eta hobetu egin behar dira, produktuen eta kontsumo-bide desberdinen eskaintza zabalagoa eskaintzeko, euskal herritar bakoitza asebeteko duen pertsonalizazio-sistema baterantz aurrera eginez eta gazteengana iritsiko dena. Horretarako:

- 4.1. Plataforma digital berriek kalitatezko ikus-entzunezko produktuak bermatu beharko dituzte, eta bitarteko tradizionalenak ez beste kontsumo-aukera eskaini, batez ere gazteenei.
- 4.2. Edukien emisio konbentzionalak zeharka konbinatu behar dira eskaintza berriak plataforma digitalen eta sare sozialen bidez bultzatzearekin, EITBren ikus-entzunezko eskaintzaren kontsumo aktiboa sortuz.

4.5. 5. konpromisoa. Lidergoa informazioan

EITB sortzeko Legean informazio-eskubideari buruz jasotako printzipioak betez, zeinak programa-kontratu honen 3.1 klausulan deskribatuta baitaude, zerbitzu publikoaren osagaiak Euskal Irrati Telebista Publikoak gizarteari ematen dion balioa egituratu behar du. Horretarako, EITBk ikus-entzunezko lehen euskal talde publikoa izaten jarraitu behar du, eta informazioan liderrak izaten jarraitu. Konpromisoa honela gauzatuko da:

- 5.1. Egunero informazio-eskaintza osoa, zorrotza, gertukoa eta kalitatezkoa egingo da, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarri guztietan (telebista, irratia eta euskarri digitalak).
- 5.2. Eztabaida-programak, elkarrizketak, erreportajeak eta albistegi bereziak egingo ditu, euskaraz eta gaztelaniaz, gaurkotasuna aztertzeko. Horietan, adituek, esatariek eta gizarte-eragileek parte hartuko dute, euskal gizarte osatzen duten sentsibilitate sozial eta politiko guztien aniztasuna islatzeko. Era horretan, herritar bakoitzak bere iritzia eta irizpidea sortzea sustatuko da.

- 5.3. EITBko hedabide guztietan zeharkako edukiak egingo dira, eta EITB talde gisa indartzen duen «EITB agenda»ren aldeko apustua egingo da.
- 5.4. Lehiakortasunari eta kontsumo-ohitura berriei erantzungo dieten informazio-produktu eta -lengoaia berrietan berrikuntzak eginez; horretarako, teknologia berriek informazio-zerbitzuei eskaintzen dizkieten aukerak erabiliz.
- 5.5. EITBko profesional-taldeen aldeko apustua egitea, informazioan sinesgarritasuna, konfiantza eta zorrotasuna bermatzeko.
- 5.6. Eztabaida publiko demokratikoa eta kalitatezkoa sustatu, irizpide zientifiko eta enpirikoetan oinarrituz; horretarako fake news, bulo edo informazio sentsazionalisten aurka borrokatuz.
- 5.7. Gizarte modernoetan azaleratzen ari diren gaiei buruzko informazioa eta edukiak bultzatuko dira, hala nola ongizate emozionala, demokrazia, klima-aldaketa, erronka demografikoa eta abar hizpide dutenak.

4.6. 6. konpromisoa. Erreferenteak gure kirolean

EITB euskal kirolaren erreferente izan behar da, Euskadiko kultura eta kirol-ondarea zaintzeko helburuarekin. Gainera, eragile eraldatzailea gisa, klubei eta kirolariei lagundu behar die haien proiektuetan, tokiko eta nazioarteko aintzatespena kirol-modalitate gehiagotara zabaltzeko interes orokorraren alde eginez. Era berean, emakumeak kirolean berdintasunez aritzeko konpromisoa hartu behar du, bai banakako kirolariei dagokionez, bai taldeko kirolei dagokionez. Konpromisoa honela gauzatuko da:

- 6.1. Euskarri digital berrien bidez ere euskal kirolaren (pilota, traineruak, herri-kirolak, etab.) informazio-estaldura zabala eta emanaldi berritzaileak egingo dira, eta horrela, gure kirolen irudi modernoak, publiko gaztearengandik hurbilago dagoena, proiektatuko da.
- 6.2. Modalitate guztietako goi-mailako kategorietan lehiatzen diren euskal taldeen eta euskal kirolarien informazio-estaldura eta zuzeneko emanaldiak eskaintzea, betiere eskubideak eskuratzeko aurrekontu-gaitasunaren eta prezioaren arrazoizkotasunaren irizpidea kontuan hartuta.

- 6.3. Emakume kirolariei laguntzea, haien presentzia sustatzea eta komunikabideetan tratamendu egokia ematea, berdintasunerantz aurrera egiteko eta dagokien aintzatespena lortzeko.
- 6.4. Erakunde, klub eta erakundeekin aliantzak egingo dira, lehiaketa eta kategoria guztietan euskal kirola babesteko, eta programak, babesletzak eta kanpaina bereziak egitea proposatuko da.
- 6.5. Euskadiko emakumezkoen eta gizonezkoen selekzioen partiden edo lehiaketen informazio-estaldura eta emankizunak egingo dira.

4.7. 7. konpromisoa. Aliantza euskal ikus-entzunezkoen ekosistemarekin

EITBk euskal ikus-entzunezko ekosistema garatzen lagundu behar du, enplegua eta aberastasuna sortzea sustatzen duten enpresen eta profesionalen gaitasunak hobetzeko, eta Euskadin ekoiztako ekoizpenek eta edukiek kanpora proiektzioa izan dezaten bultzatzea, kanpoan ezagutza eta irudia emanaz. Konpromisoa honela gauzatuko da:

- 7.1. EITBk ikus-entzunezko ekoizpen-enpresekin duen harremanean kudeaketa-eredu gardena garatuko du, eta EITBren eskubideak babestuko ditu, bereziki euskaraz.
- 7.2. Ikus-entzunezko produkzioan berrikuntza eta sormena sustatuko dituzten dinamikak bilatuko dira, baita nazioarteko aliantzak ere, Euskadin ekoiztako edukiak maila globalean hedatu daitezkeen lortzeko.
- 7.3. «Miramon Faktoria» proiektua bultzatzen jarraituko da, ikus-entzunezkoen ekoizpenerako erreferentziako zentro gisa sendotzeko.
- 7.4. Film luzeak, film laburrak, dokumentalak eta fikziozko serieak sustatuko dira, batez ere gazteentzat (Euskal Herrian nahiz Europan eginda), eta EITBren euskarrietan hedatuko dira.

4.8. 8. konpromisoa. Teknologiaren kudeaketa aurreratua

Tresna teknologikoen bilakaera azkarrak eta bitzita laburrak zein produkzio-beharrek ezinbesteko bihurtu dute azken urteotan EITBn teknologiaren kudeaketa eta ezarpena

birplanteatzea, bai EITBk aurre egin behar dien erronkak antzemateko, bai proiektuak kudeatzeko eredu arinetan aurrera egiteko; EITBk gertatzen diren aldaketa teknologikoetara garaiz eta kalitatez iritsi ahal izateko, lehiakortasunari eutsiz. Konpromisoa honela gauzatuko da:

- 8.1. Zerbitzu digitalen irisgarritasuna eta kalitatea bermatuko duten sistemak eta tresnak berritzeko teknologiaren kudeaketa berria ezarriz.
- 8.2. Merkatu-kontsumitzaileen beharrei eta erritmoei erantzuteko prospektiba eta joera teknologikoko mekanismoak izatea.
- 8.3. Datuetan oinarritutako kudeaketarantz eboluzionatuko da, EITBk euskal gizarteari zerbitzu hobea eta pertsonalizatuagoa eskaini ahal izateko, adimen artifizialean egindako aurrerapenen ezarpen etiko eta arduratsua ere kontuan hartuta.

4.9. 9. konpromisoa. Etorkizunean inbertitzea

EITBk etengabeko inbertsioa eta etorkizuneko plangintza egiten jarraitu behar du, ikus-entzunezko ekosisteman gertatzen ari diren aldaketei erantzuteko, bai edukiak kontsumitzeko eta ekoizteko moduari dagokionez, baita azpiegiturak erabiltzea eta kudeatzeari dagokionez ere. Egokitzeko gaitasuna funtsezkoa da. Konpromisoa honela gauzatuko da:

- 9.1. EITBren beharrak eta lehentasunak inbertsio-plan baten bidez kudeatuko dira.
- 9.2. EITBren posizionamendua indartuko duten berrikuntza- eta eraginkortasun-prozesuak sustatuko dituzten lan-espazioak sortuko dituen Egoitzak Modernizatzeko Plana definituz eta aurrera eginez.

4.10 10. konpromisoa. EITB Enpresa

EITB kudeaketan erreferentziazko enpresa izan behar da, eta indarrean dagoen legeria betetzen dela bermatzeko eta bere jarduera kontrolatzeko eta ebaluatzeko eredu aurreratuetara eboluzionatzeko aukera emango dioten sistemak inplementatu behar ditu. Konpromisoa honela gauzatuko da:

- 10.1. Aurrekontuen Legean legez ezarritako aurrekontu- eta plantilla-helburuak beteko dira, eta legez ezarritako auditoriak egiteaz gain, Eusko Legebiltzarraren edo Eusko Jaurlaritzaren aginduz ezartzen diren gainerako

auditoriak ere egingo dira Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren edo Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren bitartez.

10.2. EITBren proiektuaren finantza-iraunkortasuna bermatzea.

10.3. EITBko talde profesionalen integrazio eta egonkortasun handiagoa emango duen giza baliabideen plana hedatzea, pertsonak sartzeko eta garapen profesionalerako eredia finkatzearen aldeko apustua egitea. Ildo beretik, EITBko ardura-postuetan emakumeak egotea bultzatuko da.

10.4. Arriskuak kudeatzeko sistema bat aplikatuko da; Araudia Betetzeko eta Delituak Prebenitzeko Plana (Compliance penala) sendotuko da; kultura etikoa bultzatuko da, eta EITB Taldeari aplikatu beharreko araudi osoa betetzen dela bermatuko da.

10.5. EITBren jardueraren ingurumen-inpaktua murriztea eta jasangarritasuna sustatzea ahalbidetzen duten ingurumen-jarduerak ezartzea.

10.6. Indarrean dagoen araudira egokitzeko, EITBren instalazioak modernizatzea eta mantentzea, energia-eraginkortasuna hobetzea barne, eta EITBk kutsadura murrizteko konpromisoa hartzea.

4.11. Konpromisoari lotutako adierazleak

Programa-kontratu honen esparruan EITBk datozen urteetarako bere gain hartutako konpromiso nagusiak monitorizatzen eta neurtzen dituzten adierazleen zerrenda. Adierazleak fidagarriak izan behar dira, eta konpromisoen trazabilitatea egitea ahalbidetu behar dute.

KONPROMISOEI LOTUTAKO ADIERAZLEAK	Neurria	Helb 2026	Helb 2027	Helb 2028	Helb 2029
ERAGIN SOZIALA ETA ALIANTZAK					
Gizarte- eta kultura-eragileekin egindako hitzarmen eta akordioen kopurua	Unit.	130-160	130-160	130-160	130-160
Arreta Zerbitzuan artatutako jakinarazpenen guztizko bolumena	-	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa
Telefono deien Arreta Zerbitzu maila, hartutako/jasotako deiak	%	90	90	90	90
Web formularioaren bidez jasotako jakinarazpenen kudeaketa hasteko batez besteko orduak	Unit.	5	5	5	5
EITBk sortutako balio soziala positiboki baloratzen duten pertsonen ehunekoa	%	85	85	85	85

KONPROMISOEI LOTUTAKO ADIERAZLEAK	Neurria	Helb 2026	Helb 2027	Helb 2028	Helb 2029
EITBk emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraginkortasunez sustatzen duela positiboki baloratzen duten pertsonen ehunekoa	%	90	90	90	90
Jasotako balio sozialari buruzko txostena	-	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa
EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA					
OTT plataformetan eskuragarri dauden euskarazko edukien orduak	Unit.	12.000-13.000	12.500-13.500	13.000-14.000	13.500-14.500
OTT plataformetan erreproduzitutako euskarazko edukien orduak	Unit	3.000.000-3.500.000	3.250.000-3.750.000	3.500.000-4.000.000	4.000.000-4.500.000
Kultura-eragileekin egindako hitzarmen eta akordioen kopurua	Unit.	80-100	80-100	80-100	80-100
EITBk euskara zaintzeko eta garatzeko duen garrantzia positiboki baloratzen duten pertsonen ehunekoa	%	90	90	90	90
IRRATIA ETA TELEBISTA					
Audientziaren emaitzen urteko txostena	-	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa
PLATAFORMA DIGITALAK					
EITBko plataformetan erregistratutako erabiltzaile kopurua	Unit.	250.000-325.000	275.000-350.000	300.000-375.000	325.000-400.000
EITBko plataformetan erabiltzaile aktiboen kopurua	Unit.	350.000-400.000	375.000-425.000	400.000-450.000	425.000-500.000
EITBko plataformetan erreproduzitutako ordu kopurua	Unit.	4.000.000-4.500.000	4.500.000-5.000.000	5.000.000-5.500.000	5.500.000-6.000.000
Digital population osoa EITBn (webguneak, app-ak eta sare sozialak)(milaka)	Unit.	3.000.000-4.000.000	3.500.000-4.500.000	4.000.000-5.000.000	4.250.000-5.250.000
LIDERGOA INFORMAZIOAN					
Telebistako albistegiekin bat egin duten erabiltzaile bakarrak	Unit.	2.300.000-2.500.000	2.200.000-2.400.000	2.100.000-2.300.000	2.000.000-2.200.000
Irratiko albistegiekin bat egin duten erabiltzaile bakarrak	Unit.	115.000-130.000	110.000-125.000	105.000-120.000	100.000-115.000
Digitaleko albisteekin bat egin duten erabiltzaile bakarrak	Unit.	600.000-750.000	650.000-800.000	700.000-850.000	750.000-900.000
EITBk gaurkotasuneko gaiei buruz duen iritzia osatzeko duen garrantzia positiboki baloratzen duten pertsonen ehunekoa	%	70	70	70	70
ERREFERENTEAK GURE KIROLETAN					
Pilota emanaldien kopurua	Unit.	250-280	250-280	250-280	250-280
Traineru, estropaden emanaldien kopurua	Unit.	35-50	35-50	35-50	35-50
Herri kirolen emanaldien kopurua	Unit.	40-60	40-60	40-60	40-60
Digitaleko kirol edukiekin bat egin duten erabiltzaile bakarrak	Unit.	200.000-300.000	250.000-350.000	300.000-400.000	350.000-450.000
EITBk euskal kirola, bere taldeak eta kirolariak ezagutzeko, ikusteko eta laguntzeko duen rola positiboki baloratzen duten pertsonen ehunekoa	%	85-90	85-90	85-90	85-90
EITBren kirol edukiek emakumeen kirolaren errekonozimendu sozialean laguntzen dutela positiboki baloratzen duten pertsonen ehunekoa	%	85-90	85-90	85-90	85-90

KONPROMISOEI LOTUTAKO ADIERAZLEAK	Neurria	Helb 2026	Helb 2027	Helb 2028	Helb 2029
ALIANZA EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKOEN EKOSISTEMAREKIN					
Euskal ekoizpeneko film luze eta dokumentaletan egindako inbertsioa	€	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua
Euskal ekoizpeneko film laburretan egindako inbertsioa	€	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua
Euskal ekoizpeneko fikziozko serieetan egindako inbertsioa	€	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua
TEKNOLOGIAREN KUDEAKETA AURRERATUA					
Inbertsio teknologikoko proiektuetan (ez, egoitzetan) gauzatutako urteko aurrekontuaren ehunekoa	%	90	90	90	90
Berrikuntza/hobekuntza teknologikoko proiektuen kopurua	Unit.	6	6	6	6
ETORKIZUNEAN INBERTITZEA					
Azpiegituretako inbertsio-proiektuetan (egoitzetan) bideratutako zenbatekoa	€	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua
Azpiegituretako inbertsio-proiektuetan (egoitzetan) gauzatutako urteko aurrekontuaren ehunekoa	%	90	90	90	90
EITB ENPRESA					
Diru-sarrera pribatuak/propioak guztira (diru-laguntzak izan ezik) milaka eurotan	€	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua
Gastuak guztira (amortizazioak izan ezik) milaka eurotan	€	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua
Inbertsioak guztira (% 6koak izan ezik) milaka eurotan	€	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua	Urteko aurrekontua
Energia aurreztearen ehunekoa (2030erako % 35eko helburua)	-	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa
Energia berriztagarrien aprobetxamenduaren ehunekoa (2030erako % 32ko helburua)	-	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa
Emakumeen presentzia EITBko ardura postuetan	%	40-60	40-60	40-60	40-60
Irudi eta markari buruzko urteko txostena	-	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa	Informatiboa

5. Konpromiso berriak.

Programa-kontratu honetan berriaz agertzen ez diren eta programazio-betebeharrei edo gastu- edo inbertsio-betebeharrei eragiten dieten konpromisoak hartu nahi balitu EITBk, 11. klausulan ezartzen den programa-kontratu hau aldatzeko prozeduraren bidez ezarri beharko dira.

6. Konpromisoen betetze-maila

EITBk programa-kontratu honen bidez bere gain hartzen dituen zerbitzu publikoko helburuen eta zereginen betetze-mailaren jarraipena eta kontrola 10. klausulan

aipatzen diren kontrol- eta jarraipen-organoeak egiaztatuko dute. Horretarako, klausula horretan aurreikusten den Jarraipen Batzordeak 4. klausulan eta hurrengoetan zehaztutako konpromiso-talde bakoitzaren betetze-maila zehaztuko du.

7. EITBren zerbitzu publikoaren jarduera finantzatzeko modua

EITBren finantzaketa mistoa da; izan ere, iturri publiko eta pribatuetatik jasotzen ditu diru-sarrerak. Hala ere, EITBk baliabide propioen sorrera hedatu behar du, bere finantzaketaren oreka ekonomikoaz arduratuz.

Aurrekoa kontuan hartuta, EITBk jaso ditzakeen diru-sarrerak honela sailkatzen dira:

- a) Eusko Jaurlaritzaren ekarpena, 8. atalean zehaztutako baldintzetan.
- b) EITBk ekitaldi bakoitzean lortutako merkataritzako edo bestelako diru-sarreraren guztizkoa.
- c) Eusko Jaurlaritzak baimentzen dituen kreditu- edo mailegu-eragiketen ondoriozko zenbatekoen guztizkoa; betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 35. artikuluan eta aplikatu daitezkeen gainerako lege-aurreikuspenetan xedatutakoa betez.
- d) EITBk bere baliabideak eta ondarea kudeatzetik edo ikus-entzunezko komunikazio-jardueran edozein negozio juridiko hitzartzetik eratorritako beste diru-sarrera batzuk.

Horrez gain, programa-kontratu honen indarraldian (eta izan litezkeen luzapenetan), Europar Batasunaren modernizaziorako eta jasangarritasunerako oinarriak ezarriko dituzten Europa mailako hainbat laguntza izapidetzen jarraitzea aurreikusi da.

Ilido horretan, EITBk hautagaitza bultzatuko du horretarako egiten diren deialdietan jasotako laguntzak lortzeko, bakarka edo lankidetzan publiko-pribatuaren bidez. Horretarako, beharrezkoak diren kudeaketa-tresna guztiez hornitu beharko da, Europako Funtsen eta laguntza eta deialdi zehatzen kudeaketa arautzen duen araudi orokorrak eskatzen duenaren arabera, kasuz kasu.

Era berean, EITBrentzat diru-sarrerak sor ditzaketen Europako funtsez bestelako laguntzak, deialdiak edo prozedurak aktibatzen badira, EITBk parte hartu ahal izango du zerbitzu publikoko helburuak eta lehentasunak lortzen lagun dezaketen funtsak lortzeko.

Hala badagokio, eta Eusko Jaurlaritzari jakinarazi ondoren, EITBk jaso ditzakeen funtsak dirulaguntza ematea eragin duten proiektuetara bideratuko dira, eta programa-

kontratu honetan zehaztutako zerbitzu publikoko konpromisoekin lotuta egon beharko dute beti.

8. Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak

8.1. Ibilgetuaren inbertsioak finantzatzeko ekarpenak

Ikus-entzunezkoen eta komunikabideen sektorea da teknologiaren eta digitalizazioaren etengabeko bilakaerak eragin handiena izan duenetako bat. Ingurune teknologiko eta sozial aldakor horrek abiadura handian garatzen diren eta EITBren jardueran zuzenean eragiten duten berrikuntza-prozesuak sortzen ditu.

Horrez gain, informazioaren teknologien aurrerapenak ikus-entzunezko esperientzia berriak, datuen transferentzia-mailak eta edukien kontsumoaren eskuragarritasuna ahalbidetzen ditu.

Ikus-entzunezkoen sektorean gertatzen ari diren aldaketa horiek, bai edukiak kontsumitzeko moduan bai ekoizteko moduan, zuzenean eragiten dute teknologien erabileran eta kudeaketan, baita produkzio-bitartekoetan ere.

Hori dela-eta, betiere EITBren zerbitzu publikoaren eginkizuna eta programa-kontratu honen esparruan hartutako konpromisoak betetzen direla bermatzeko, ohiko inbertsioez gain, EITBk, alde batetik, berrikuntza teknologikorako eta Data eta Adimen Artifizialaren kudeaketarako duen gaitasunari lotutako ezohiko inbertsioak behar ditu, eta, bestetik, ekoizpen-bitarteko berrietarako edo lehendik existitzen zirenetarako aparteko inbertsioak. Aurrerapen teknologiko berriak etengabe sartzan ari dira ikus-entzunezkoen sektorean, eta, beraz, EITBk berrikuntza eta sormena areagotuko ditu aukera teknologiko berrietatik abiatuta.

Horretarako, EITBk inbertsio-plana dauka, EITBren egoitzak modernizatzeko plana barne hartzen duena, eta proiektu-liburutegia, erakundearen aurrekontu-gaitasunetara egokitzeko behar den malgutasuna ematen diona.

Horrenbestez, programa-kontratuak jasotzen dituen konpromisoak hobeto betetzeko, EITBk honako hau egin beharko du:

- Inbertsio estrategikoak, taldearen lehiakortasunean epe ertain eta luzeko eragina izango dutenak, EITBk onartutako plan estrategikoa behar bezala burutzeko funtsezkoak izango direnak.
- Zaharkitzearen ondorioz birjarpen-irizpideei eta egokitzapen teknologikoari lotutako inbertsioak, oinarrizko zerbitzuak eskaintzen jarraitzeko eta taldearen

azpiegiturak pixkanaka egokitzeko beharrezkoa den bilakaera teknologikora, gizarteari zerbitzua ematen jarraitu ahal izateko.

Ibilgetu materialaren edo ez-materialaren inbertsioak (berriak zein birjarpeneoak) finantzatzeko, Eusko Jaurlaritzak, aurrekontuen lege-proiektuetan EITBrentzako eta haren sozietate kudeatzailearentzako honako inbertsio-ekarpen hauek jasoko ditu, euro arruntetan:

2026	2027	2028	2029
9.500.000 €	12.000.000 €	15.000.000 €	20.000.000 €

EITBk inbertsio-proiektuen xehetasunak eta urteko plangintza aurkeztuko dizkio Jarraipen Batzordeari.

8.2. Ustiapeneko gastuak konpentsatzeko ekarpenak

EITBri agintzen zaion zerbitzu publikoko lanak ekitaldi bakoitzean sortutako diru-sarrerara propioen (publizitatearen salmenta eta kudeaketako beste diru-sarrerara batzuk) eta guztizko gastuen arteko aldea orekatzeko, Euskal Autonomia Erkidego Administrazio orokorrak konpromisoa hartzen du aurrekontuen lege-proiektuetan behar adina ekarpen egiteko.

2026. urterako 183.912.100 €-ko ekarpena aurreikusi da.

Hurrengo ekitaldietarako ekarpenek behar adina aurrekontu-zuzkidura (baliabide) izango dituzte, EITBk erantzunkidetasunaren eta iraunkortasun ekonomikoaren bermea oinarri hartuta, kontratu-programa honek ezartzen dituen baldintzetan bere jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren ekintzak betearazteko, eta proiektua arrakastaz gauzatzeko bermeekin heltzeko, horretarako behar besteko finantzaketa emanaz.

- Ekarpen horiek kontuan hartuko dute programa-kontratu honetan zehaztutako zerbitzu publikoko lehentasunei lotutako proiektu zehatzak, funtsezkoak eta nagusiak indartzeko beharra.
- Ekarpen horiek kontuan hartuko dituzte proiektuari epe ertain eta luzean eusteko behar den egiturazko plantilla, bai eta beharrezko den lanbide-sailkapenetik eratorritako etorkizuneko homogeneizazioarekin lotutako kostuak ere.

- Ekarpenek jasoko dituzte, gainera, 2026, 2027, 2028 eta 2029ko ekitaldietan Eusko Jaurlaritzaren jarraibideen arabera ezartzen diren ordainsari-igoerak, hau da, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean soldata-igoerei dagokienez legez aplikatu beharrekoak (baita Gizarte Segurantzaren kotizazio-oinarrien aldaketen gainean edo soldata-masari eragiten dioten beste kontzeptu batzuekin lotuta egon daitezkeen bestelako aldaketak ere).

Erantsitako zenbatekoak proiektu zehatzen arabera gauzatuko dira ekitaldi bakoitzean, erantzunkidetasuna eta iraunkortasun ekonomikoa bermatzeko alderdien artean partekatutako irizpidearen arabera, eta programa-kontratu honetan ezarritako lehenetasunak betetzeari lotuta.

8.3. Europako zinematografia-obrak nahitaez finantzatzeko ekarpenak

Zinema-inbertsioak, aplikatu beharreko araudiaren arabera, finantzatzeko, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du aurrekontuen lege-proiektuetan ETBren inbertsioetarako honako ekarpen hauek egiteko, euro arruntetan:

2026	2027	2028	2029
8.000.000 €	8.500.000 €	9.000.000 €	9.500.000 €

EITBk zineman inbertitzeko proiektuen xehetasunak eta horien plangintza aurkeztuko dizkio Jarraipen Batzordeari.

8.4. Erakundeen kanpainak eta iragarkiak egiteko ekarpena

EAEko Administrazio Orokorreko sailek eta horiei atxikitako erakunde autonomoek kanpaina eta iragarki instituzionalak zabaldu ahal izango dituzte irrati eta telebistako emisio-kanaletan, Interneten eta, hala badagokio, EITBren euskarri berrietan, eta kanpaina eta iragarki instituzional horiek zabaltzeko hartzen dituen espazioei dagokien ekarpen ekonomikoa egiteko konpromisoa hartuko dute.

EITBren komunikazio-kanaletan egindako kanpaina eta iragarki instituzionalak, nolahi ere, EITBren zerbitzu publikoa erabiliz egin beharko dira, programa-kontratu honen eta aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Kanpaina eta iragarki instituzionalen emisioagatik EITBri dagokion ekarpen ekonomikoa kuantifikatzeko, kanpaina edo iragarkiaren ardura duen administrazio-organoak eranskin exekutibo bat izapidetu beharko du kanpaina emititu aurretik, eta,

hala badagokio, gizarte-hedabideen arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak onartuko du. Espedientean emisioaren kostu garbia justifikatu beharko da.

EAEko Administrazio Orokorrari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoek atxikita dauden sailaren bidez izapidetu ahal izango dituzte eranskin exekutiboak; kasu horretan, sailak egin beharko du izapidetze osoa.

8.5. Jarduera espezifiko gehigarriak

Programa-kontratu honen helburuen eta xedeen esparruan, ekitaldi bakoitzean, 8.1, 8.2, 8.3 eta 8.4 puntuetan adierazitakoez gain beste jarduera espezifiko batzuk zehaztu ahalko dira, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoaren eginkizuna betetzeko, hala behar bada (hala nola programa bereziak, babesletzak, eta abar).

EITBri dagokion ekarpen ekonomikoa kuantifikatu aurretik, jarduera hori programa-kontratu honen xedearekin bat datorren aztertu beharko da.

Horretarako, jarduera espezifikoaren ardura duen administrazio-organoak gizarte-hedabideen arloan eskumena duen zuzendaritzari eskatu beharko dio eranskin substantibo bat izapidetzeko, eta, hala badagokio, gizarte-hedabideen arloan eskumena duen saileko titularrak onartuko du, Jarraipen Batzordeak proposatuta.

9. Indarraldia

Finantzaketa-esparru egonkor honen indarraldia sinatzen den unetik 2029ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Hala ere, indarraldia amaitu aurretik, Jarraipen Batzordeak programa-kontratua luzatzea erabaki ahal izango du, alde batera utzi gabe Jarraipen Batzordeak luzapenari egokitu beharreko baldintzei buruz hartzen dituen erabakiak. Luzapena indarrean egotea, halere, ezinbestekoa da kreditu egokia eta nahikoa egotea.

10. Kontrola eta jarraipena

10.1. Zerbitzu publikoaren funtzioaren kontrola

Zerbitzu publikoaren funtzioaren kontrola errazteko eta lehen aipatutako irratidifusioko zerbitzuei estatu-laguntzen arloko arauak aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen Komunikazioan ezarritako kontrol-eskakizunaren ondorioetarako, EITBk

urtero helaraziko dio EITBren Kontrolerako Legebiltzarreko Batzordeari (Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 20. artikulua araberak), baita Eusko Jaurlaritzari berari ere, EITBri agindutako zerbitzu publikoaren funtzioa betetzeari buruzko txostena, eta bertan jasoko du bere jardueren, programazioaren, zerbitzuen eta emisioen gaineko informazioa.

Era berean, EITBk Legebiltzarreko batzorde horri aurkeztuko dio zerbitzu publikoaren funtzioa egoki betetzen ari den balioesteko eskatzen dion informazioa.

10.2. Europako obraren finantzaketa aurreratua betetzen dela kontrolatzea

Obra europarra sustatzeko betebeharrak betetzen direla kontrolatzeari dagokionez, EITBk obra europarren emisio- eta finantzaketa-betebeharrak betetzeari buruzko txostenak bete eta igorri beharko ditu, indarrean dagoen araudian zehaztutako moduan eta epeetan.

10.3. Programa-kontratuaren kontrola eta jarraipena

1. Programa-kontratu hau sinatzen denetik hilabeteko epean, Jarraipen Batzordea eratuko da, bertan xedatutakoa behar bezala gauzatzen eta koordinatzen dela ziurtatzeko.
2. Hauek izango dira jarraipen-batzordeko kideak:
 - Eusko Jaurlaritzak izendatutako lau pertsona, Kultura eta Hizkuntza Politika (gizarte-hedabideak), Aurrekontu eta Lehendakaritza arloetan eskumenak dituztenen artetik.
 - EITBk izendatutako lau pertsona.
3. Jarraipen Batzordea behar bezala eratzeko, batzordea osatzen duten kideen gehiengoaren (gutxienez bost kide) quoruma beharko da.
4. Jarraipen Batzordeko erabakiak hartzeko, gehiengoaren adostasuna beharko da.
5. Jarraipen Batzordearen bileretara joan ahal izango dira, gai zehatzetarako, bertaratuen gehiengoak onartzen dituen pertsonak; pertsona horiek bileretan parte hartu ahal izango dute, hitzarekin baina botorik gabe.
6. Jarraipen Batzordeko lehendakaria Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa izendatutako pertsonetako bat izango da beti, eta kalitate-botoa izango du erabakiak hartzeko. Honako hauek egin beharko ditu:

1. Koordinatzaileekin etengabeko harremanak izatea programa-kontratuaren kudeaketari dagokionez.
 2. Kudeaketaren nondik norako guztien eta lortzen diren emaitza guztien berri eman behar dio Administrazioari.
 3. Informazio-truke guztiak koordinatuko ditu.
7. Halaber, Jarraipen Batzordeak:
1. Aldizkako bilerak egingo ditu programa-kontratuaren barruan adostutako EITBren jardueraren jarraipena egiteko.
 2. Programa-kontratuan jasotako helburuak egoki beteta dauden zehaztuko du 4. klausulan eta hurrengoetan zehaztutako lehentasunei dagokienez, eta ekintza horiei lotutako adierazleak behar bezala zehaztu, egokitu eta eguneratuko ditu.
 3. Onartzen duen prozeduraren arabera, finantzaketa-esparru egonkor honetan adostutako konpromisoen betetze-mailaren ebaluazioa egingo du.
 4. Hala badagokio, egon daitezkeen desbideratzeak zuzentzeko dagozkion neurriak proposatuko ditu.
 5. Halaber, programa-kontratuaren doikuntzak erabaki ahal izango ditu, baldin eta aldaketa esanguratsurik ez badakarte edo haren oinarrizko magnitudeetan aldaketarik eragiten ez badute eta, hau da, 11. klausulan jasotakoaren arabera programa-kontratua aldatu beharrik ez badago.
 6. Ekitaldi bakoitzean jarduera espezifikoak gara daitezen, 8.5 klausularen arabera, programa-kontratuan gehitu beharreko eranskinak proposatuko ditu, hala badagokio.
 7. Jarraipen Batzordeari dagozkio programa-kontratu honetan esleitzen zaizkion gainerako funtzioak betetzea.

10.4. Finantzaketaren kontrola

EITBk lortzen dituen diru-sarrerak (programa-kontratu honen 7. klausulan zehaztuta) ezin dira zerbitzu publikoaren funtzioa betetzeko sortutako kostuak baino handiagoak izan, programa-kontratu honetan ere definitu den bezala.

Hori dela-eta, aplikatzekoa den araudiak eskatzen duen bezala, finantza-kontrolako mekanismoak eutsi beharko zaizkie. Izan ere, egokiak dira eta EITBn ezarrita daude jada, egiazta dadin lortzen duen finantzaketa publikoak ez duela inola ere gainditzen diru-sarrerara komertzialen edo bestelakoen bidez ordaindu gabeko kostuaren zenbatekoa.

11. Programa-kontratuaren aldaketak

Honako programa-kontratu hau indarrean dagoen bitartean aldatu ahal izango da, Jarraipen Batzordeak proposatuta eta sinatzaileak ados jarri ondoren, eta aldaketa eranskin gisa sartuko da.

12. Programa-kontratua indargabetzeko arrazoiak

Programa-kontratua honako kausa hauetako bat gertatuz gero indargabetuko da:

- a) Programa-kontratua sinatu duten guztiek hala erabakitzen badute.
- b) Programa-kontratuaren indarraldia bukatzea eta hura luzatzeko erabakirik ez hartzea.
- c) Alderdiak hartutako konpromisoen ez-betetze larriak egitea; Jarraipen Batzordeko kide gehienek hala irizten diotenean.
- d) Zuzenbidean onartutako beste arrazoiren bat.

13. Izaera

Honako esparru egonkor honek administrazio-izaera du, eta, ondorioz, Administrazioari dagokio bera gauzatzeko orduan sortzen diren zalantzak interpretatzea eta ebaztea.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiak testu honen bi ale sinatu dituzte, adierazitako tokian eta egunean.

Ibone Bengoetxea Otaolea andrea
Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde
eta Kultura eta Hizkuntza Politikako
sailburua

Jon Andoni Aldekoa de la Torre jauna
Euskal Irrati Telebista ente publikoko
zuzendari nagusia